


Zer da CNT?







a n a r k o s i n d i k a l i s m o a



Aurkibidea

Zer da CNT?	3
CNT, klase sindikatua	4
Nor izan daiteke CNTko kide?	5
CNTren printzipioak	5
Internazionalismo sindikala	6
CNTren taktika: Ekintza Zuzena	7
CNTren filosofiaren oinarria: anarkismoa	7
Nola funtzionatzen du sindikatuak?	8
Sindikatuaren Komitea	9
Nola egituratzen da CNT?	9
Nola antolatzen da CNT enpresa batean?	9
Gure ekintza sindikala	10
CNTren esparru sindikala	11
Gure eredu sindikala	11
Hauteskunde sindikalak eta enpresa-komiteak	13
Baina, etika kontua besterik ez da?	15
CNT, ezarpeneko sindikatua	16
Gure lan-aldarrikapenak	17
Gure aldarrikapen sozialak	18
Baina hori ez da nahikoa	19

CNT SINDIKATUA

-  <http://www.cnt-sindikatu.org>
-  @cntsindikatu
-  <https://www.facebook.com/CNTsindikatu/>
-  https://www.instagram.com/cnt_sindikatu

Zer da CNT?

Lanaren Konfederazio Nazionala (CNT) sindikatu bat da. Erakundea osatzen dugun pertsona guztiok onartutako akordioen gainean eraikitakoa. Ekintza kolektibo eta solidarioaren bidez gizartea eraldatzea da gure jomuga. Langile klasearen interesak defendatzeko erabiltzen ditugun metodoek definitzen gaituzte. Gure helburua hobekuntza sozial esanguratsuak lortzea da, langileriaren beraren ekintza koordinatuaren bidez.

CNTn aparteko sindikalismoa praktikatzen dugu, askeagoa, hurbilagoa eta eraginkorragoa dena. Gure eredu sindikala sendotu eta zabaltzeko lan egiten dugu, antolaketa modu independente eta horizontal bat proiektatzeko asmoz, norberaren eta taldearen emantzipaziorako gai litzatekeena.

Gure jarduera lan-ingurunean zentratzen da, desberdintasunaren eragile nagusia izaten jarraitzen duelako. Gure jarduera sindikalaren emaitzak, indarrak batuz, gure lan, ekonomia eta gizarte-baldintzak hobetu ditzakegula baieztatzen ari dira. Ekintza koordinatuak, elkarren arteko babesak eta adimen kolektiboak hainbat sektore, enpresa eta kolektibotan hobekuntza esanguratsuak lortzea ahalbidetu digute.

Zer da CNT?

CNTren antolaketa-eredua oso moldagarria da, eta horrek gure jarduera lan-esparru hertsitik harago proiektatzeko aukera ematen digu. Aktiboki esku hartzen dugu agertzen zaizkigun gizarte-arazoetan, inposiziorik gabeko ekimen propioak sortuz eta gauzatuz.

CNT, klase sindikatua

Kapitalarekin ulerkorra den sindikalismoaren aurrean, langile klaseko sindikalismo bat aukeratzen dugu, itun-sindikalismoaren guztiz kontrakoa eta honekin apurtu nahi duena. Lehiakortasunaren ordeztu, elkartasuna sustatzen dugu; delegazionismoaren ordeztu, bitartekaririk gabeko ekintza zuzena. Berdintasunean erlazionatzen gara, erabateko parte-hartzea sustatzen dugu, sindikatua osatzen dugun pertsonok gure jardueraz erabakitzen, jarduten eta arduratzen garenak izanik.

Ez dugu inoren —ez enpresen, ez Estatuaren— diru-laguntzarik jasotzen; beraz, erabat independenteak gara gobernuekiko, alderdiekiko eta kanpoko edozein esku-sartzerekiko.



Nor izan daiteke CNTko kide?

Edozein langile afiliatu daiteke, bere ideologia edozein dela ere, baina ezin dute afiliatu errepresio-kidegoetako kideek ez eta beren kargura soldatapeko langileak dituztenek. Afiliatzeko ez da beharrezkoa printzipio libertarioekin bat etortzea, baizik eta Erakundearen akordioak errespetatzea eta honen izen ona galtzeko moduan ez jokatzeta.

CNTren printzipioak

Sindikatu honek bere funtzionamenduan **sindikalismo iraultzailearen** printzipioei jarraitzen die:

- a) **Autogestioaren** printzipioa: haiei dagozkien arazoei buruz erabaki behar dutenak arazo horien eraginpean dauden pertsonak direla uste dugu. Inork ez badu zure izenean lan egiten, inork ez du zugatik erabaki behar. Horregatik, CNT sindikatu asanblearioa da: bere barruan afiliatuen asanbladak erabakitzen du beti.
- b) **Federalismoaren** printzipioa: CNTko sindikatu bakoitzak autonomia du bere esparruaren barruan jarduteko eta, aldi

Zer da CNT?

berean, gainerako sindikatuekin konfederatzen da aurre egin beharreko egoeren aurrean batera jarduteko.

- C) **Elkartasunaren** eta **Elkar Babesaren** printzipioa: CNTko sindikatu guztiek itun solidario bat ezartzen dute konfederazioko gainerako sindikatuekin eta, horren ondorioz, atal batek jasotzen duen eraso bakoitzari erantzun osoa ematen zaio. Gauza bera esan daiteke sindikatu bakoitzaren afiliazioari dagokionez.

6

Internazionalismo sindikala

CNT Lanaren Nazioarteko Konfederazioan (CITen) dago, antzeko helburuak dituzten beste erakunde sindikal batzuekin batera.

Enpresek maila globalean jarduten dute eta hauei aurre egiteko gu bezalako beste langile batzuen beharrea gaude, haiek ere behar gaituzten bezala.

Soilik nazioarteko mailan indarrak batuz egin ahal izango diegu aurre enpresen estrategiei, mugak gu banatzeko eta langileon artean lehiatzeko erabiltzen dituztenak.



CNTren taktika: Ekintza Zuzena

CNTren taktika Ekintza Zuzena da. Horrek esan nahi du gatazka bat duten pertsonak beraiek lortu behar dutela gatazka horren konponbidea: **langile-klaseak berak konpontzen ditu bere gatazkek, bitartekaritzarik gabe.**

CNTren filosofiaren oinarria: anarkismoa

CNT sindikatu anarkista bat dela entzungo zenuen. Hori ez da zehatza: CNT komunismo libertarioa helburu duen sindikatua da, eta funtzionamendu asanblearioa ideia anarkistetan oinarrituta dago.

Horrek esan nahi du anarkista izan behar dudala CNTkoa izateko? Ez. CNTkoa izateko langilea izan behar duzu eta sindikatuaren funtzionamendu libertarioa onartu. Horregatik da CNT sindikatu anarkosindikalista bat.

Gizartea errotik eraldatzea nahi dugu, soldatapeko lana ezabatzea, iraultza soziala. Gure helburua Komunismo Libertarioa da, askatasuna eta berdintasuna funtsezko balio bihurtzen dituen sistema sozio-ekonomikoa. Eta gure helburuak lortzeko haiekin koherenteak diren baliabideak erabili behar ditugula uste dugu.

Zer da CNT?

Denak ez du balio. Helburuak ez ditu inoiz bitartekoak justifikatzen. Gizarte askea, berdinzalea eta anaiartekoa nahi badugu, gure erakundeak eta gure ekintzak askeak, berdinzaleak eta anaiartekoak izan behar dute.

Baina, era berean, estatuaren edo patronalaren eraso ba-koitzak erantzun bat izan behar duela pentsatzen dugu. Ez dugu beste masaila jartzen, ezta bidegabekeriarekin etsitzen ere. Autodefentsaren printzipio honek patronalarekin eta erakundeekin aurrez aurre jartzea dakar. Horregatik guztiagatik, CNT anarkosindikalista da.

8

Nola funtzionatzen du sindikatuak?

Inork ez digu jarraibiderik ezartzen eta, beraz, gure erantzukizuna erabatekoa da. Erabakiak asanbladan hartzen ditugu, guztioi eragiten digun horretan zuzenean parte hartzen dugularik. Erabakiak afiliazioak berak hartzen ditu, eta komiteek koordinazio eta lan-funtzioak baino ez dituzte betetzen. Sindikatuaren afiliazioak adosten du sindikatuaren barne-funtzionamendua, CNTren akordioak errespetatuz.



Sindikatuaren Komitea

Komitearen zeregina instrumentala baino ez da, eta sindikatuaren erabakiak martxan jartzeaz arduratzen da. Hainbat idazkaritzek osatzen dute eta Sindikatu osoa ordezkatzeko dute. Asanbladak horiek ezeztatu ditzake, azken hau beti subiranoa baita.

Nola egituratzen da CNT?

Elkarrekin lotura estua duten sindikatuek osatzen dute CNT. Hauek autonomoak dira eragiten dienaren inguruan erabakitzeko, CNTren Kongresu Akordioak errespetatuz eta betez, eta eskualde edo konfederazio-mailako gaiak dagozkien esparruetan erabakitzen dira, zeinetan hauek guztiak ordezkaritza zuzena duten.

Nola antolatzen da CNT enpresa batean?

Sail Sindikal baten bidez, enpresa jakin batean CNTn afiliatutako langile guztiak osatzen dutena.

CNTko sail guztiak asanblada bidez hartzen dituzte erabakiak. Ondoren, egin beharreko lan sindikala sail sindikala osatzen duten

Zer da CNT?

pertsonen artean banatuko da. Hobekuntzak lortzeko pertsonen inplikazioa erdiestea beharrezkoa dela uste baitugu.

Gure ekintza sindikala

Arrakastak lortu ditugu ehunka mila euroko aurrekontuak dituzten abokatuek eta sindikatuak porrot egin duten tokietan. Izan ere, gure aldarrikapenetan ez dugu legezkoa denaren alde egiten, bidezkoa denaren alde baizik. CNTk bere gain hartutako arazo bat akordio egoki bat lortu arte ikusgai jartzen da, epaileek arrazoa eman edo ez. Presioa egiten dugu indarrak agortu arte, eta hori ez da laster gertatzen.

Ezkutuko ekonomian, prekarioen sektorean, enpresa txiki, ertain eta handietan, multinazionalan, administrazio publikoan, gure ekintza sindikalak bere eraginkortasuna erakutsi du. Ontziolak, Ferrovial, Clece, AVE, CODEX, EDE Taldea, Fosters Hollywood, Servicarne, Xuntako interinoak eta ehunka enpresa negoziatzera eta amore ematera behartuta egon dira, langileen bultzadaren aurrean.



CNTren esparru sindikala

Sail sindikalek osatzen dute. Erakunde horiek ekintza zuzena erabiliz jarduten dute enpresen edo erakundeen aurrean, bitartekaririk gabe, eta era guztietako presio-neurriak erabiltzen dira zenbait aldarrikapen lortzeko, betiere gizartea eraldatzeko asmoa ahaztu gabe.

Esparru sindikal hori guztiz desberdina da gainerako erakunde sindikalekin alderatuta, horiek guztiek hauteskunde sindikalak eta enpresa-komiteen sistema hartzen baitituzte erreferentziatzat.

Gure eredu sindikala

Askotan entzungo zenuen enpresa-komiterik edo ordezkaritza bateraturik ez badago, ezin dela sindikalismorik egin. Gezurra da. Gu gara posible denaren adibidea. Estatu espainiarrean sindikalismoa egiteko bi bide daude: bide bateratua (enpresa-komiteak, langileen ordezkariak) eta sindikala (sail sindikalak).

Eredu unitarioa edo bateratua (gainerako sindikatuek jarraitzen dutena) hauteskunde sindikaletan oinarritzen da: hainbeste boto, hainbeste delegatu. Legeak mugatu egiten du lor daitezkeen ordezkarien kopurua eta lortzen den kargua pertsonala da. Kargu

Zer da CNT?

horiek pribilegioak dakartzate langileen aurrean, soilik botoak jaso izanagatik, nahiz eta gero inolako lan sindikalik egin ez edo enpresarekin langileen aurkako akordioak sinatu. Ordezkaritza bat baliogabetzea oso zaila da.

Eredu Sindikala (CNTtik jarraitzen duguna) lanean oinarritzen da. Sail sindikalean inork ez du pribilegiarik; zereginak banatu egiten dira eta erabakiak asanbladan hartzen dira. Errepresio sindikaletik eta kaleratzeetatik babesten gaituena ez da kargua, egiten den lan sindikala baizik: zenbat eta lan sindikal gehiago egin, orduan eta babes handiagoa izango duzu.

Gure eredia langileen ezarpenean oinarritzen da, hau da, afiliazioa izatean, horrek legitimatzen gaitu. Hobekuntzak lortzeko,

lana egiten duen eta ezarpena duen sail sindikal bat behar da. Izan ere,

enpresa batean afiliazioa badugu, grebak deitzeko eta ekintza zuzena aplikatzeko indarra dugu.

Horrela lor ditzakegu hitzarmen kolektibo duinak, soldata-igoerak eta kaleratze kolektiboetarako aurre egitea.



Hauteskunde sindikalak eta enpresa-komiteak

Legeak ezartzen du sindikatu ordezkatzaille izateko hauteskunde sindikaletara aurkeztu behar dela, hauteskunde horietan ordezkari sindikalak eta enpresa-komiteak aukeratzen direlarik. CNTk ez du hauteskunde horietan parte hartzen arrazoi hauengatik:

- Prekarioan bazaude edo enpresa txiki batean lan egiten baduzu, gehienetan ezin duzu parte hartu ere egin. Langileen gutxiengo batek baino ez ditu hauteskunde sindikalak.
- Hauteskundeen bidez, zure ordezkariari zure ordezkari erabakitzeke, sinatzeko eta negoziatzeko bai eta haien borondatea inposatzeko boterea ematen diezu, 4 urtez zure kontrolerik kanpo geratzen direlarik.
- Behin zure ordezkariak hautatu dituzula, horiek pribilegioak dituzte gainerako langileen aldean; askok aprobetxatu egiten dituzte beti pribilegiatuak izaten jarraitzeko, enpresa-komitean betikotuz.
- Hauteskundeen bitartez, sindikatuek liberatu sindikalak eta haien mantenurako diru-laguntzak lortzen dituzte. Funtsean, askorentzat interes ekonomikoen kontua da.

Zer da CNT?

- Eta ez da pertsonen kontua bakarrik, eredia da: langileen eskubideen alde borrokatzen duten ordezkariak eta enpresa-komiteko kideak badaude; hala ere, enpresa-komiteen eredia postuak gutxien borrokatzen dutenek bete ditzaten sortua dago, horiek enpresarekin elkarlanean amaitu dezaten. Zentzu honetan, enpresaren interesen alde egiten du.

Hauteskunde sindikalek eta enpresa-komiteek mesede egiten diete enpresei eta Administrazioari, azken finean haiek finantzatzen baitituzte. Jatorria sindikatu bertikal frankistaren hauteskundeetan duten hauteskunde sindikalen bidez, enpresek eta administrazioak hizketakideak lortzen dituzte langileekin zuzenean hitz egin beharrik ez izateko. Izan ere, legezko solaskide

horiek langileak arrastoan sartuta, otzan eta desmobilizatuta mantentzen dituzte, beren jarrerari eutsi nahi dioten lehenak direlako eta diru-laguntza eta liberazio sindikalen mende daudelako zuzenean.



Baina, etika kontua besterik ez da?

Praktikak erakutsi digu sail sindikalak enpresa-komiteak baino erabilgarriagoak direla. Jar dezagun adibide bat.

Zure enpresan ez dizkizute dagozkizun plus batzuk ordaintzen, edo kontratuak lege-iruzurrean daude eta zerbait egin nahi duzu. Sindikatu batean esango dizuten lehenengo gauza da hauteskunde sindikalak antolatu beharko liratekeela, enpresa-komite bat sortzeko edo langileen ordezkari bat ateratzea lortzeko. Betiere kasua indibidualizatzen ez badute, dagozion abokatuari pasatuz.

Hauteskundeak egingo dira, hautagaitza ezberdinak egongo dira eta hilabete batzuk barru komitea egongo da. Arazoa konpondu al da? Ez. Gainera, enpresak hautagaitza «horiak» (pro-enpresa) susta ditzake edo, pribilegioen bidez, komiteko kideek enpresaren neurriak onar ditzaten lor dezake. Hautagaitza sustatu zuen sindikatuak ezin du ezer egin hau kontrolatzeko, desafiliatzeaz aparte, baina pertsona horrek bere karguan jarraituko du.

Beste adibide bat. Komitean sindikatu ezberdinetako ordezkariak daude eta agian batzuk hor hauteskunderen zerrenda betetzeko egongo dira. Baliteke bakoitzak bere sindikatuak esaten dionaren arabera begiratzea; beraz, testuinguru horretan lan eraginkorra egitea zaila da benetan.

Zer da CNT?

Horren aurrean, sail sindikalen bidez funtzionatzea proposatzen dugu, non garrantzitsuena egin beharreko lan sindikala den, ez kargua. Martxan jartzeko, zenbait langile ados jartzea eta zereginak banatzea besterik ez duzu behar. Ez da denbora galtzen zerrendekin, hautagaitzekin, hauteskondeekin... langile gisa izaten diren arazoekin lan egiten hasten da. Lan espazioa sailak osatzen du, interes berberak dituen taldeak. Eta espazio benetan demokratikoa da, non gaiak sailak erabakitzen dituen, eta ez txandako ordezkariak.

16

CNT, ezarpeneko sindikatua

CNTk ez du ordezkagarritasuna bilatzen, afiliatuen ezarpenak legitimatzen du. Ordezkagarritasuna (boto kopurua) ez da indarraren sinonimo; oinarri horizontaleko sindikatu baten ezarpenak, non afiliatuek asanbladetan erabakitzen duten eta lantokian bertan beraien akordioak gauzatzen dituzten, ordea, bai. Enpresarentzat ez da gauza bera bere sindikatuaren izenean erabakitzen duen delegatu batekin tratatzea, edo langileak ordezkatu eta informazioa hauei helarazten dien (finean erabakian langileek beraien har ditzaten) delegatu batekin tratatzea. Gainera, boto kopuruak ez du axola plantillak delegatuekin bat egiten ez badu, eta hori gehiegitan

Zer da CNT?

gertatzen da. Horregatik, gure indarra ezarpenean dago, afiliazioan. Izan ere, horrela konpromisoa beti handiagoa izango da.

Gure lan-aldarrikapenak

Eta negoziatzen dugunean, zeri buruz jarduten dugu? Gure gatazka guztietara eramaten ditugun gutxieneko aldarrikapen batzuk ditugu, adibidez: soldata igoera linealak nahi ditugu, soldata txikienei mesede egingo dietenak; gizonen eta emakumeen artean ez dadila lan-diskriminaziorik edo soldata-diskriminaziorik egon; igoerak oinarrizko soldataren gainean egin daitezen nahi dugu, eta ez osagarrien gainean; uko egiten diogu aparteko orduak eta destajuak egiteari; lanpostuarekiko desafekzioa, polibalentzia eta mugigarritasun funtzionala eta geografikoa dakarten lan-sistema berrien aurka gaude; enpresa-makinari lotzen gaituen katea hausteko borrokatzen gara, lanaldia murriztuz, oporretarako eta aisialdirako denbora gehituz, erretiroa 55 urtera aurreratuz; langileek ekoizten dutena kontrola dezaten saiatzen gara; langileek, haien asanbladek eta sail sindikalek negoziatorako eskubidea izan dezaten bultzatzen dugu; benetako askatasun sindikala eskatzen dugu, enpresen barruko jarduera sindikala ahalbidetuko duena inolako mugarik gabe...

Zer da CNT?

Gure aldarrikapen sozialak

Ez dugu soilik lan arloan jarduten, soziala dena ere gure bizitzaren parte delako: gizonen eta emakumeen arteko erabateko berdintasuna aldarrikatzen dugu; planeta hondatuko ez duen eta bere baliabideak agortuko ez dituen garapen ekonomikoa nahi dugu, ekologia indartuz; antimilitaristak gara, gerra justurik ez dagoelako, gerra guztiek ahulari mina eta heriotza eragiten diotelako, boteretsua aberasten duten heinean; arbuiatu egiten ditugu generoan eta arrazan oinarritutako diskriminazioak; justizia soziala nahi dugu, eta ez sistematikoki milaka preso kartzeletara eramaten dituen justizia bat, lehenik delitua sortzen duen eta gero delitugilea egiten duen sistema baten erruz; hezkuntza libertarioa nahi dugu, non haurrak lehiakortasunetik eta kontsumismotik urrun dagoen balio-sistema batean heziko diren; manipulazioei eta erlijio sineskeriei aurre egiten diegu, eta abar; pertsonen askatasuna bultzatzen duen guztiaren aldekoak gara, dauden desberdintasunak ezabatzearen aldekoak, bai eta elkartasunean lotzen gaituen guztiaren aldekoak.



Baina hori ez da nahikoa

Diru gehiago irabaztea, kontratu egonkorra izatea eta auzoan eta eskualdean zerbitzu onak egotea, hori ondo dago. Baina, arretaz begiratzen baduzu, mundu hau gaizki banatuta dagoela ikusiko duzu.

Gizadiaren historian inoiz izan ez diren baliabideak ditugu: ezagutzak, energia, komunikabideak. Eta, hala ere, izurritez inguratuta gaude: goseteak, gerrak, arrazakeria, sexismoa, langabezia, harresiak, terrorismoa, botere-abusua. Hori hemen gure ondoan gertatzen da, hementxe bertan.

Eta kausak ezagunak dira: pribilegioak pertsona gutxi batzuen eskuetan, indarkeria modu zigorgabeenean erabiltzen dutenak, Estatuaren aparatuen eta bere errepresio-baliabideen babespean.

Mafiosorik bihozgabeena aingerutxo bat da, gerrak antolatzen dituen, luxuan bizi eta Vatikanoko audientzietan aita santuaren bedeinkapena jasotzen duen plutokrata eta mandatarien taldearekin alderatuta.

Pentsa ezazu lan-istripuetan, Estatu osoan urtero mila pertsona baino gehiagoren heriotza eragiten duten horietan: nortzuk dira erantzule, eskrupulurik gabeko industrialariak eta diruan bizitzan baino interesatuagoak dauden gobernariak ez badira?

Zer da CNT?

Horregatik CNTk ez du soilik lau txanpon gehiago irabazteko borrokatzen, azken finean bizitzaren kostu gero eta handiagoak jango dituenak, beste mundu mota baten alde baizik.

